Enlaces FAQ:
Desgravación: https://www.goteo.org/faq/investors#q112
Cómo me descargo el certificado de donación: https://www.goteo.org/faq/investors#q117

[EUSKARA]

Zer da *matchfundinga*? Nola funzionatzen du?

Matchfundinga crowdfundingaren aldaera bat da; hau da, proiektuen finantzaketa kolektiboa herritarren ekarpenen bidez. Bestelako finantzaketa mota hori bereizten duen ezaugarria da **proiektuek administrazio publikoaren babes ekonomikoa ere badutela. Hala, emaileen laguntza ekonomikoa biderkatzen da.** PiztuMeta! matchfunding deialdiaren kasuan, **Gipuzkoako Foru Aldundiak batuko ditu indarrak herritarrekin, gure lurraldeko kultura proiektuak bultzatzeko.**

Nola funtzionatzen duen galdetzen diozu zure buruari? Bada, oso erraza da: herritarrek bildutako € bakoitzeko beste € bat emango du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Adibidez, gure proiektua **100 €-rekin** babestea pentsatzen ari bazara, **Aldundiak beste 100 € gehituko ditu; hau da, 200 € jasoko ditugu guztira.**Baina bizitzako gauza on gehienek bezala, honek ere baditu muga batzuk: gure proiektuari egiten diozun lehen ekarpena bakarrik biderkatuko da (nahi beste egin ditzakezun arren), eta gehienez ere 100 € arte.

Baliteke **proiektutik zure ekarpena saritzen dugun ere** galdetzea zeure buruari. **Bada, erantzuna BAI da!**Proiektuan aurkituko duzun sari zerrendatik gehien gustatzen zaizuna hauta dezakezu. Eta ez da lagunduz gero lortuko duzun onura bakarra: gainera, **zure ekarpenaren ehuneko handi bat desgrabatu ahal izango duzu hurrengo errenta aitorpenean!** Ehunekoak aldatu egiten dira, baina, oro har, Euskadin % 30ekoa da, Nafarroan % 25ekoa eta gainerako autonomia erkidegoetan % 80ekoa.

Azkenik, beste xehetasun garrantzitsu bat eman nahi dizugu: kanpainaren hiru unetan eta **24 edo 48 orduz bakarrik, x2 balio beharrean x3 balioko dute zure ekarpenek!** Horrek esan nahi du **jartzen duzun 100 €-ko, 200 € gehituko dituela Aldundiak: alegia, 300 € lortuko dira guztira.** Beraz, adi egon gure komunikazioei, unea iristen denean dena prest izan dezazun guri laguntzeko!

[ESPAÑOL]

¿Qué es el matchfunding? ¿Cómo funciona?

El matchfunding es una variante del crowdfunding, o lo que viene a ser lo mismo, la financiación colectiva de proyectos a través de aportaciones ciudadanas. La característica que hace única a esta forma de financiación alternativa, es que los **proyectos también cuentan con el respaldo económico de la administración pública, multiplicando el apoyo económico de las personas donantes.** En el caso de la convocatoria de matchfunding PiztuMeta!, es la **Diputación Foral de Gipuzkoa la que une fuerzas con la ciudadanía para impulsar a proyectos culturales de nuestro territorio.**

¿Te estás preguntando cómo funciona? Pues es muy fácil, por cada € recaudado por parte de la ciudadanía la Diputación Foral de Gipuzkoa aporta otro €. Por ejemplo, si estás pensando en apoyar

nuestro proyecto **con 100 €, la Diputación sumará otros 100 €, es decir, recibiremos un total de 200 €.** Pero como en la gran mayoría de cosas buenas, esta también tiene ciertos límites: solamente multiplica la primera aportación que realices a nuestro proyecto (aunque puedes realizar las que desees), y hasta un máximo de 100€.

Puede que también te estés preguntando si **desde el proyecto te recompensamos por tu contribución…, ¡pues la respuesta es SÍ!** Puedes escoger la recompensa que más te guste en el listado de recompensas que encontrarás en el proyecto. Y no es el único beneficio que obtendrás si nos apoyas: además, **¡podrás desgravarte un porcentaje importante de tu aportación en la próxima Declaración de la Renta!** Los porcentajes varían pero a grandes rasgos en Euskadi es de un 30%, en Navarra de un 25% y en el resto de Comunidades Autónomas es de un 80%.

Por último queremos contarte otro detalle importante: en 3 momentos de la campaña y solamente **durante 24 o 48h, ¡tus aportaciones en vez de valer x2, van a valer x3!** Esto significa que **por cada 100€ que aportes, la Diputación añadirá 200€, logrando un total de 300 €.** ¡Así que sigue atento a nuestras comunicaciones y cuando llegue ese momento lo tengas todo listo para apoyarnos!